

**RUNNER • AEB - Alemania - Frantzia**Marian Mathias (zuzendaria, gidoilaria)
Joy Jorgensen (ekoizlea)

Bizikleta-gurpilen soinua hartxintzar gainean

SERGIO BASURKO

Egia esateko, Marian Mathiasen *Runner* filma ikusetik kalerakoan batek ez daki oso argi zinema-aretoetik ala New Yorkeko Whitney Museum of American Artetik atera ote den. "Film bat ala Edward Hopper margolari famatuaren koadro triste bat mugimenduan ikusi dut", galdetzen dio ikusleak bere buruari. AEBtako bizitza garaikidearen bakardadeari buruz egindako erretratu ikusgarria da, hori bai.

"AEBtako Mendebalde Ertaineko landa-paisaiak zama handia dauka pelikulan, paisaia pertsonaia bat izatea nahi nuen, hezur-haragizko pertsonaien antagonista. Paisaia ia hipnotikoa zen, guretzat ezinezkoa zen alde batera uztea eta eginkizun garrantzitsua du filmean", azaldu du Marian Mathiasek pasearen osteko prentsurrekoan. "Eta pozik nago ikusleekiko inpresio hori sortu badu. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiet Indianako berun-koloreko lainoei... ", bromatan gaineratu du.

Hannah –Holandako Haas ezizenez deitzen diote– bakarrik bizi da zelai erdian isolatuta dagoen etxe batean. Bere aita alkoholikoa da eta buru-nahastea du; beraz, neska gazteak egunerokotasun itogarriari aurre egin beharko dio. Bere aita hil ondoren, Illinoisen lurperatua izateko nahia betetzen du, eta bertan bere adineko mutiko gazte bat, Will, ezagutuko du. Etxera itzulitakoan, Haasen egoera muga-mugan dago: bizitzeko aterperik gabe –bankua etxearen jabe egin da aitzak hartutako zorreatatik– eta inor gabe. Aurkitzen duen irtenbide bakarra: ordura arte ezagutu duen guztia atzean utzi eta ihes egin.

Plano luzeak

Erritmo geldoak, plano luzeen bidez irudikatuak, Haasen bizitzeko egunen bilakaera islatzen du. Hannah Schiller gazteak aktore-lan nabarmena egiten du filmean. "Luzaroen ibili ginen protagonista egokiaren bila. Casting asko egin genituen eta Berlinen Hannah ikusi nuenean, bera zela sentitu nuen. Hartualdi bakoitzean zerbait ez-



Marian Mathias eta Joy Jorgensen argazkian jostalari.

JORGE FUENBUENA

berdina egiteko gai da; harritu egiten nau", aitortu du.

Mathiasek, obra zuzentzeaz gain, gidoia idatzi du eta edizioaz ere arduratu da. Aipatu behar da proiektua Cannesko zinema-jaialdiko Cinefondation labean sortu zela, eta zuzendariak bere esker ona adierazi du haiek emandako aukeragatik.

Zuzendariak aitortu du nolabaiteko bertigoa sentitu zuela bere lehen film luzeari aurre egiteko orduan, eta, horregatik, nahiago izan zuen eszena bakoitza norbaiti idatzitako gutun gisa planteatu. "Eszena bakoitza esaldi

"Mendebalde Ertaineko landa paisaia pertsonaia bat izatea nahi nuen, hezur-haragizkoen antagonista gisa"

gisa planteatu nuen, eta Hannahren interpretazioarekin hazten joan zen gero", adierazi du.

Mathiasek diziplina artistikoen eraginak aitortu ditu, hala nola pintura eta argazkilaritza. Familiaren etxea nola aurkitu zuen kontatu du: "Mississippi ibaira joan ginen gidatzen, eta bat-batean etxea ikusi genuen. Museo asko bisitatzen nituen, eta pinturari eta argazkigintzari buruzko ezagutzak nituen. Etxetik urrundu, muinoan behera joan eta koadro baten antza zuela iruditu zitzaidan. Kamera han jartzea erabaki nuen", azaldu du.

Mathiasek mundu bat sortu du, non oparotasunak nahigabe iheskorra dirudien; hala ere, bere filma graziaz eta adoretz ixtea lortzen du, eta bere titulua premiazko esanahiaz kutsatzen du.

A poetic vision of a desolate Midwest

Writer-director Marian Mathias presented her debut feature *Runner* in the Official Selection yesterday. It focuses on a young woman in the rural Midwest facing an uncertain future after her father's death. With very little dialogue but a profound sense of emotion left unsaid, *Runner* uses its stark landscape as a character to tell the story of a first love. At the press conference that the director gave in the Kursaal to discuss her film, flanked by her producer, Joy Jorgensen, she acknowledged the pictorial and cinematic references that people recognised in her films such as Edward Hopper and Terrence Malick, and said she felt humbled to be compared with them, but revealed that her influences were actually much broader and extended to genres like poetry and photography as well. As well as explaining that sound was also a huge part of making *Runner*, she also stressed how she had aimed to make an atemporal film with no modern signifiers that could exist at any point in time, and that she had wanted to play with the way that many small towns in the Midwest feel stuck in time. As for her future plans, she said she'd love to work again with Joy Jorgensen who returned the compliment by commenting on how it had been a pleasure to work with a director with such crystal-clear images in her head.

ULRICH SEIDLEN KOMUNIKATUA

"Eskerrak eman nahi dizkiot José Luis Rebordinosi hasieratik *Sparta* filmaren alde egiteagatik, presio mediatico eta bat-bateko zein ustekabeko polemika gorabehera. Arras garrantzitsua da niretzat. Nire hasierako asmoa Donostiara joatea zen, eta bakarrik ez uztea nire taldeak eta nik hainbeste denboran landu dugun filma. Hala eta guztiz ere, konturatu naiz nire presentziak filmaren harrera ilundu lezakeela. Orain filmak bere kabuz hitz egiteko unea da".

Ulrich Seidl, 2022ko irailaren 17a.

COMUNICADO DE ULRICH SEIDL

"Estoy muy agradecido a José Luis Rebordinos por apoyar *Sparta* desde el principio, a pesar de la presión mediática y de la repentina e inesperada polémica que ha suscitado. Significa mucho para mí. Mi impulso inicial fue ir a San Sebastián y no dejar sola la película en la que mi equipo y yo hemos trabajado durante tanto tiempo. Sin embargo, me he dado cuenta de que mi presencia en la premiere podría ensombrecer la recepción de la película. Ahora es el momento de que la película hable por sí sola".

Ulrich Seidl, 17 de septiembre de 2022.

STATEMENT BY ULRICH SEIDL

"I am really grateful to José Luis Rebordinos for supporting *Sparta* right from the beginning, despite the pressure from the media and the sudden and unexpected controversy that it has stirred up. It means a lot to me. My first impulse was to come to San Sebastián and not to leave the film that my team and I have worked on for so many years all on its own. However, I have realized that my presence at the premiere might overshadow how the film was received. Now is the time for the film to speak for itself."

Ulrich Seidl, 17th of September 2022.